AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

499

1884/2011 EBAZPENA, abenduaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinen bidez baliogabetu egiten baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 2ko 1714/2011 Ebazpena, Debagoieneko Ospitaleko Erizaintzako zuzendari-lanpostua betetzeko deialdi publikoa egiten duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 2ko 1714/2011 Ebazpenaren bidez, Debagoieneko Ospitaleko Erizaintzako zuzendari-lanpostua betetzeko deialdi publikoa egin zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakiaren bidez, Gipuzkoako Osasun Barrutian Debagoieneko, Debabarreneko eta Goierri-Urola Garaiko erakunde sanitario integratuak sortzen dira, Gipuzkoa Ekialdeko Eskualdearen antolaketa aldatzen da (aurrerantzean Gipuzkoa Eskualdea deituko da), eta Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdea osasun-zerbitzuen erakundea kentzen da. Erabaki hori 2011ko abenduaren 16ko EHAAn, 237. zenbakian, argitaratu zen, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean.

Adierazitakoaren arabera, Debagoieneko Ospitaleko osasun-zerbitzuen erakundea egun horretan kenduko da, eta beraz, ebazpen honen lehen paragrafoan aipatutako ebazpena baliogabetu egin behar da.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 2ko 1714/2011 Ebazpena, Debagoieneko Ospitaleko Erizaintzako zuzendari-lanpostua betetzeko deialdi publikoa egiten duena, baliogabetzea (abenduaren 5eko EHAA, 230. zk.).

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.